

Arrasatek sei idazleren lanak aztertuko ditu urriaren 23tik aurrera

Udal liburutegiak antolatutako literatura solasaldietan ostegunera arte eman daiteke izena

Arrasate. Azken zortzi urteetako ohiturari jarraituz, Arrasateko Udal Liburutegiak literatura solasaldiak jarriko ditu abian. Saio horietan sei idazleri buruz arituko dira, hilaren 23tik abendura arte. Hil bakoitzean bi izango dira aztertuko dituzten egileak, euskaraz zein gaztelaniaz.

Era honetan, datorren 23an, Philippe Claudelen Almas Grises izeneko liburua landuko dute; urriaren 30ean, aldiz, Anjel Lertxundiren Ihes Betea lanaren txanda iritsiko da.

Azaroaren 20an, Rafael Reig asturiarraren Manual de literatura para caníbales obran murgilduko dira, eta 27an, Amelie Nothomb belgikarraren Katalinarenaken.

Bukatzeko, abenduan bi hitzordu prestatu dituzte 11rako. Alde batetik, Karmelo C. Iribarrenen Ola de frío eta, bestalde, Beñat Sarasolaren Kaxa huts bat liburuei buruz arituko dira solasean.

Aukera bikaina

Ekitaldi guztiak doan izango dira eta, bereziki, 40 urte azpiko herritarrei zuzenduta daude, "literatura ezagutzeko aukera bikaina baita", azpimarratu dute antolatzaileek. Pasa den urtean bezala, aurten ere saio hauetara egileak ekartzeko ahalegina egingo dute. Beraz, ekintza horietan esku hartu nahi dutenek ostegunera arte eman dezakete izena Kulturaten.>a.d.